



LEGAZPIKO
UDALA

Legazpiko gizarte zerbitzuen eta elkarteen udal-gida



AURKIBIDEA

1

3-4 orr.

Informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa

2

5-10 orr.

Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak

3

11-14 orr.

Familia eta bizikidetzak

4

15-18 orr.

Indarkeria matxista eta sexu-erasoak

5

19-22 orr.

Gizarteratzea

6

23-24 orr.

Tokiko eta nazioarteko elkarteentzako dirulaguntzak

7

25-27 orr.

Elkarteak

1

INFORMAZIOA,
BALORAZIOA,
DIAGNOSTIKOA
ETA ORIENTAZIOA

Zerbitzu honek baliabide eta laguntzei buruzko informazioa eskaintzen du, eta batez ere jarraitu behar diren pausuak azaltzen ditu.

Jarraian identifikatuko dira:

- Beharrak eta zailtasunak.
- Gaitasun eta sendotasunak.
- Laguntza sarea.
- Diagnostiko bat egingo da.

Beharrezkoa denean, balorazio espezializatuak egingo dira:

- Mendekotasunaren balorazioa
- Desgaitasunaren balorazioa
- Gizarte-bazterketa egoeraren balorazioa
- Adingabekoen eta nerabeen babesgabetasunaren eta arriskuaren balorazioa

Balorazio hauek kontuan izanik:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskaintzen dituen laguntza eta baliabideei buruzko informazioa emango da.
- Baliabide eta laguntza bakoitzari buruzko informazio praktikoa eta argibide egokiak emango dira.
- Pertsonak behar duenean tramiteak egingo dira.

Ondoren, pertsonaren egoeran esku hartzeko Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) egiten da.

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuek egiten dituzte tramite gehienak, zerbitzu eta laguntzak beste erakunde batzuk eskaintzen dituzten arren, esaterako Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak.

Hainbat elkartek eta erakundek dituzten baliabide eta laguntzei buruzko informazioa ere ematen da.



2

DESGAITASUNA EDO
MENDEKOTASUNA
DUTEN PERTSONAK

Zerbitzu honek desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsona guztiei eskaintzen dizkie baliabideak:

- Autonomoak izan daitezen sustatzeko.
- Mendekotasuna prebenitzeko.
- Pertsona hauen beharrei erantzuteko.

Hauetako edozein zerbitzu eta laguntza lortzeko dagokion balorazio espezializatua egitea beharrezkoa da.

2.1 Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua - ELZ

Norentzat?

Desgaitasuna edo mendekotasuna duten personentzako.

Zertarako?

- Ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitzeko.
- Autonomia galdu ahala zailtasunak prebenitzeko.
- Zailtasun horietan hobetzen laguntzeko.

Nola?

Etxez etxeko laguntzarako langileek arreta eta zaintza pertsonalean, etxeko lanetan eta inguru komunitarioan sartzen laguntzen diete beharra dutenei.

2.2 Adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua

Norentzat?

Mendekotasun arriskuan dauden edo mendekotasun arina duten adinekoentzat.

Zertarako?

- Narriadura pertsonala prebenitzeko.
- Autonomia mailari eusteko eta hobetzeko.
- Haien inguru komunitarioan gizarteratzea errazteko.
- Bakartze, baztertze eta isolatze egoerak saihesteko.

Nola?

Lanegunetan, lotura afektiboak indartzen dituzten eta trebetasun erlazionalen garapena sustatzen duten jarduera estimulagarriren bitartez.



2.3 Adinekoentzako eguneko zentroa

Norentzat?

Mendekotasun egoeran dauden 65 urtetik gorako adinekoentzat.

Zertarako?

- Zaintza pertsonalak eta erlazionalak jasotzeko.
- Narriadura pertsonala prebenitzeko.
- Autonomia mailari eusteko eta hobetzeko.
- Haien inguru komunitarioan gizarteratzea errazteko.
- Bakartze, baztertze eta isolatze egoerak saihesteko.

Nola?

Urteko egun guztietan, lotura afektiboak indartzen dituzten eta trebetasun erlazionalen garapena sustatzen duten jardueren bitartez.

2.4 Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa – Garagune

Norentzat?

Desgaitasun intelektuala dutenentzat.

Zertarako?

- Inguru komunitarioan gizarteratzea errazteko.
- Zaintza pertsonalak eta erlazionalak jasotzeko.
- Narriadura pertsonala prebenitzeko.
- Autonomia mailari eusteko eta hobetzeko.
- Bakartze, baztertze eta isolatze egoerak saihesteko.

Nola?

Lanegunetan, lotura afektiboak indartzen dituzten eta trebetasun erlazionalen garapena sustatzen duten jardueren bitartez.



2.5 Adinduentzako ostatu zerbitzua (Meazti Etxea- Ezkurrenea)

Norentzat?

Mendekotasun arina duten edo autonomo baloratutako 65 urtetik gorako adinekoentzat.

Zertarako?

- Inguru komunitarioan erabiltzaileen iraunkortasuna errazteko.
- Ohikoa edo iraunkorra den etxebizitza gisa erabiltzeko.
- Autonomia pertsonala hobetzeko, mantentzeko eta/edo autonomo izatea ahalbideratzen duten trebetasun eta gaitasunen narriadura prebenitzeko.
- Bakartze, baztertze eta isolatze egoerak saihesteko.
- Segurtasun sentimendua sustatzeko.

2.6 Desgaitasuna duten pertsonentzako ostatu zerbitzua

Norentzat?

Mendekotasuna eta desgaitasuna aitortuta dituzten 18-64 urte bitarteko pertsonentzat.

Zertarako?

- Inguru komunitarioan erabiltzaileen iraunkortasuna errazteko.
- Ohikoa edo iraunkorra den etxebizitza gisa erabiltzeko.
- Autonomia pertsonala hobetzeko, autonomiari eusteko edota autonomo izatea ahalbideratzen duten trebetasun eta gaitasunen narriadura prebenitzeko.
- Bakartze, baztertze eta isolatze egoerak saihesteko.
- Segurtasun sentimendua sustatzeko.



2.7 Atsedenaldirako zerbitzua

Norentzat?

Mendekotasuna, desgaitasuna edo normalean etxean artatzen dituzten gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzat.

Zertarako?

Sentartekoei atsedenaldia emateko edota garapen pertsonalerako denbora izan dezaten, egoitza-ostatuan hartuz gaisoak aldi baterako egonaldietan.

2.8 Sendian

Norentzat?

Arrisku edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen babesle eta familiartekoen zaintzaileentzako.

Zertarako?

Zaintzaileen beharrei erantzuten dizkietan jarduerak, formakuntza, laguntza psikologikoa eta autolaguntza taldeak eskaintzeko.

2.9 Prestazio ekonomikoak

2.9.1 Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa - LPPE

Norentzat?

Mendekotasuna dutenentzat.

Zertarako?

Beharra dutenean profesionalak kontratatzeko.

Laguntzaren zenbatekoa mendekotasun mailaren arabera da.

2.9.2 Familia Inguruneko Zaintzetarako eta Zaintzaile Ez Profesionalei laguntzeko Prestazio Ekonomikoa - FIZPE

Norentzat?

Mendekotasuna duen senitarteko batekin bizi den eta hura zaintzen duen pertsonarentzat.

Bi laguntza hauen kopurua mendekotasun graduaren arabera da. Pertsona adingabea edo adinez nagusia denaren arabera ere bada.



2.9.3 Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa - ZLPE

Norentzat?

Plaza publiko bat eskatu baina plazarik ez duten mendekotasuna duten pertsonentzat.

Zertarako?

Egoitza pribatuek eskaintzen dituzten arreta zerbitzuak ordaindu ahal izateko.

2.10 Telelaguntza zerbitzua

Norentzat?

- Mendekotasun arriskuan edo mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat.
- Bakarrik bizi diren nagusi autonomoentzat.
- Bakartze sozial arriskuan dauden pertsonentzat.

Zertarako?

Erabiltzaileak, berehala, trebatutako langileekin harremanetan jartzeko, urteko egun guztietan eta egunean 24 orduz, behar den arreta emateko eta autonomia eta segurtasun sentimendua sendotzeko.

2.11 Laguntza teknikoak

Norentzat?

% 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten eta mendekotasuna duten pertsonentzat.



Zertarako?

Pertsonek era autonomoan bizitzeko izan ditzaketen arazoei aurre hartu, konpentsatu eta arintzeko.

Nola?

- Etxebizitzan egokitzapen lanak eginez.
- Laguntzeko produktu berreskuragarriak eskainiz, mailegu- edo aldi baterako lagapen-sistema baten bitartez.
- Berreskura ezin daitezkeen laguntzeko produktuak eskainiz laguntza ekonomikoen bitartez.

2.12 Aparkaleku txartela

Norentzat?

Baldintzak betetzen dituzten desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat.

Zertarako?

Erreserbatutako aparkalekuetan denbora batez aparkatzeko.

3

FAMILIA ETA
BIZIKIDETZA

(ADINGABEAK ETA NERABEAK)

Zerbitzu honen helburua adingabeen eta nerabeen garapen egokirako zailtasunak dituzten familiei eta bazterkeria arriskuan dauden helduei laguntzea da.

3.1 Familia esku-hartzea adingabe eta nerabeekin

Norentzat?

Zailtasun arin edo moderatuko egoeran dauden adingabe eta nerabeak dituzten familientzako.

Arrisku-egoera: *Haurraren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egiten dion egoera.*

Zertarako?

- Zailtasunak gainditzen laguntzeko.
- Gurasoen gaitasun eta trebetasunak lantzeko.
- Jokaera egokiak garatzeko.
- Harreman egokiak eta inguru babesgarriak sustatzeko.

Nola?

Prozesuan zehar familiako hezitzaileak familiak laguntzen eta babesten ditu.

Egoera larrian edo babesgabetasun egoeran dauden familiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurren Babeserako Zerbitzuak artatzen ditu, kasu bakoitzean dagokion esku-hartze espezializatua aurrera eramaten duena.



3.2 Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua

Norentzat?

Garapen arazoak dituzten edo izateko arriskua duten 0-6 urte bitarteko haurrentzat eta familiako zaintzaileentzat.

Zertarako?

Motrizitatea berreskuratzeko eta behar bereziak artatzeko.

Zerbitzu hau eskatzeko beharrezkoa da zailtasunak barne hartzen dituen medikuaren txostena aurkeztea.



3.3 Beste tramite batzuk

Norentzat?

Familientzat.

Zertarako?

Honako hauek tramitatzeko:

- Familia ugariaren titulua.
- Jaiotzagatiko laguntza ekonomikoak.
- Adopzioagatiko laguntza ekonomikoak.
- Adingabearen egitatezko zaintza daukan pertsonarentzako laguntza ekonomikoak.
- Informazio eta formakuntza jardunaldiak.

Egitatezko zaintza: adingabearen legezko tutorea izan gabe, adingabearen ardura duen pertsona.





4

INDARKERIA
MATXISTA ETA
SEXU-ERASOAK

Zerbitzuaren helburua da egoerak baloratzea, laguntza profesionala eskaintzea eta beharrezko baliabide edota zerbitzuak kudeatzea.

4.1 Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxea

Norentzat?

Etxeko indarkeriaren biktima diren eta gainditze-prozesuan dauden emakumeentzat, babes-neurririk behar izan gabe aldi baterako bizitoki bat behar dutenean.

Zertarako?

- Etxeko indarkeria jasaten duten pertsonen ostua emateko.
- Ostatu beharra duten egoerak berehala artatzeko.
- Emakumeei eta haiekin bizi diren eta haien mendeko dauden pertsonen aldi baterako ostua emateko.
- Laguntza aiposekin aldi baterako ingurune segurua ahalbideratzeko.
- Beharrezko aholkularitza eta informazioa eskaintzeko.
- Laguntza eta babes soziala emateko.
- Seguru sentiarazteko.



4.2 Urola Garaiko Berdintasun Arloa

Urola Garaiko Berdintasun Arloa Urola Garaia Mankomunitatearen barruan dago eta zerbitzuak Ezkio-Itsason, Legazpin, Urretxun eta Zumarragan eskaintzen ditu.

Zertarako?

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasun eta diskriminazio egoerak zuzendu eta berdintasunari begirako programak, planak eta proiektuak sustatzeko.

Nola?

Urola Garaiko Berdintasun Arloak kudeatzen eta koordinatzen dituen zerbitzu ezberdinen bitartez, hala nola:

- Tailerrak eta ikastaroak urte guztian zehar Eskualdeko Ahalduentze eskolan.
- Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako laguntza psikologikorako zerbitzua.
- Aholkularitza juridikorako zerbitzua.

Eskualdeko (Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, Zumarraga) Emakumeen Etxea Urretxun dago. Halaber, Emakumeen Etxeak Legazpin lokal bat dauka (Saturnino Telleria, 1).

4.3 Indarkeria matxista jasan duten pertsonentzako egoitza-zentroak

Norentzat?

Indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzat eta haien babespean dauden pertsonentzat.

Zertarako?

- Ostatu beharra duten pertsonak berehala artatzeko.
- Emakumeei eta haiekin bizi diren eta haien mende dauden pertsonen aldi baterako ostatua emateko.
- Laguntza aiposekin aldi baterako ingurune segurua emateko.
- Beharrezko aholkularitza, informazioa eta laguntza eskaintzeko.
- Laguntza eta babes soziala emateko.
- Seguru sentiarazteko.



4.4 Laguntza psikosoziala

Norentzat?

- Edozein indarkeria matxista mota jasan duten pertsonentzat.
- Seme-alabentzat.
- Erasotzaileentzat.

Zertarako?

Profesional espezializatuekin behar psikologiko eta emozional guztiak artatzeko.

4.5 Laguntza juridikoa

Norentzat?

Edozein indarkeria matxista mota jasan duten pertsonentzat.

Zertarako?

Arreta soziojuridikoaren bitartez, balizko tratu txar eta sexu-erasoetatik eratorritako gatazkak prebenitzeko eta arintzeko.


4.6 Genero indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoa

Norentzat?

Genero indarkeria jasan duten pertsonentzat eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenentzat.

Zertarako?

Aldi baterako diru sarrera arintzen laguntzeko.



5

GIZARATERATZEA

Zerbitzu hauen helburua da aldaketak bultzatzea eta pertsonen, familien eta taldeen ongizatea sustatzea.

5.1 Familia esku-hartzea helduekin

Norentzat?

Gizarte bazterkeria jasateko arrisku txiki edo erdi mailakoa duten helduentzat.

Zertarako?

Zailtasunak dituzten helduak babesteko, orientatzeko eta laguntzeko.

Nola?

Prozesuan zehar familiako hezitzaileak familiak babesten, orientatzen eta laguntzen ditu.

Gizarte bazterkeria larrian dauden helduak Gipuzkoako Foru Aldundiak artatzen ditu.



5.2 Gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxea

Norentzat?

Larrialdi edo behar larri batengatik ohiko etxebizitza utzi behar duten pertsona edo familientzat.

Zertarako?

- Langile profesionalik ez duen aldi baterako ostatua eskaintzeko.
- Beharrezko aholkularitza eta informazioa eskaintzeko.
- Laguntza eta babes soziala emateko.



5.3 Elikagaien bankua

Norentzat?

Egoera ekonomiko larrian dauden pertsona eta familientzat edota gizarte bazterkeria arriskuan edo egoeran daudenentzat.

Zertarako?

Elikatzeko oinarrizko beharrak arintzen laguntzeko.

Nola?


Udaletxean eskatzen da eta gizarte erakunde baten bitartez banatzen da hileru.

5.4 Prestazio ekonomikoak

5.4.1 Gizarte Larrialdietarako Laguntzak - GLL

Norentzat?

Oinarrizko gastuei aurre egin ezin dieten pertsonentzat, batez ere, etxeko gastuei aurre egiteko: argia, gasa...



Zertarako?

Gizarte bazterkeriari aurre hartzeko, ekiditeko eta gutxitzeko.

Nola?

Gastu zehatzak ordaintzeko laguntza ekonomiko puntualak dira.

5.4.2 Gizarte Ongizateko Funtseko Pentsioak - GOFP

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldi baterako laguntza finkoa ematen du.

Norentzat?

Diru-sarrera gutxi dituzten pertsonentzat, gutxienez % 45eko desgaitasuna dutenentzat, 65 urte baino gehiago dituztenentzat edota beste laguntzarik jasotzen ez dutenentzat.

5.4.3 Kotizazio Gabeko Pentsioa - KGP

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldi baterako laguntza finkoa ematen du.

Norentzat?

Erretiroa hartzeko adina duten edo Gizarte Segurantzaren pentsioa jasotzeko eskubidea ez duten eta gutxienez % 65eko desgaitasuna duten pertsonentzako.



Diru-sarrerek Bermatzeko Errenta (DBE) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) Lanbide bidez eskatzen dira zuzenean.
Hitzordua hartzeko: 945160600.
Helbidea: Nafarroa Enparantza 3. 20700 Zumarraga

5.4.4 Tratamendu terapeutiko eta errehabilitazio tratamenduetara joatea

Norentzat?

Adikzioen tratamenduetara joaten diren pertsonentzat eta programa espezifikoetara joaten diren adingabeak dituzten familientzat.

Zertarako?

Tratamendu eta programetarako joan-etorrien gastuak ordaintzeko.



6

TOKIKO ETA
NAZIOARTEKO
ELKARTEENTZAKO
DIRULAGUNTZAK

6.1 Gizarte Ekintzan jarduerak garatzen dituzten tokiko elkarteentzako urteko laguntza ekonomikoak

Norentzat?

Legazpin egoitza duten elkarteentzat.

Zertarako?

- Sentsibilizaziorako.
- Formakuntzarako, informaziorako edota gizarteratzeko.
- Arlo sozialean boluntariora sustatzeko.
- Aisialdiko eta garapen pertsonaleko jarduerara integratzaileetarako, arrakala digitala murriztera bideratutakoak barne.

6.2 Nazioarteko lankidetzara sustatzen duten elkarteentzako urteko laguntza ekonomikoak

Norentzat?

Nazioarteko lankidetzarako programak dituzten gobernuz kanpoko erakundeentzat (GKE).

Zertarako?

- Sentsibilizaziorako.
- Formakuntzarako, informaziorako edota gizarteratzeko.
- Gizarte boluntariora edota beste gizarte erakunde batzuen bitartez programak garatzeko.



7

ELKARTEAK

7.1 Alkoholiko anonimoak

Helbidea: Patrizio Etxeberria kalea 3, 1
Posta elektronikoa: aaare3@gmail.com



7.2 Atzegi

Helbidea: Laubide auzoa 21, behea
Posta elektronikoa: asociados@atzegi.org



7.3 Buztintegi

Helbidea: Latxartegi kalea 2
Posta elektronikoa: buztintegi@hotmail.com



7.4 Cáritas

Helbidea: Nafarroa kalea 2
Posta elektronikoa: mggerenu@gmail.com



7.5 Odol Emaileak

Helbidea: Manuel Lekuona Kalea, N°3, Bajo, 20018
Donostia-San Sebastian, Gipuzkoa
Posta elektronikoa:
donantesdesangre.euskadi@osakidetza.eus



Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa

7.6 Donostiako Goyeneche Fundazioa Legazpi Garagunea

Helbidea: Aizkorri kalea 16

Posta elektronikoa:

legazpi@fundaciongoyenechess.org



Garagune

Legazpi

Fundación Goyeneche
de San Sebastián

7.7 Hare Haizea

Helbidea: Plazaola kalea 19-3.B

Posta elektronikoa: harehaizea@gmail.com



7.8 Iratzarri

Helbidea: San Inazio auzoa, 27

Posta elektronikoa: iratzarri.legazpi@gmail.com



7.9 Katxalin

Helbidea: Saturnino Telleria kalea 1

Posta elektronikoa: katxalin@katxalin.org (Legazpi)



7.10 Nagusilan

Helbidea: Latxartegi kalea, 2

Posta elektronikoa: nagulegazpi@gmail.com



7.11 Hotz Legazpi

Dirección: Plazaola kalea, 19

Posta elektronikoa: hotzlegazpi@gmail.com





LEGAZPIKO UDALA

Gizarte zerbitzuak

Helbidea: Euskal Herria plaza 1

Telefonoa: 943737030/010

Posta elektronikoa: haz@legazpi.eus

Webgunea: www.legazpi.eus

Arreta ordutegia: 7:30-15:00